

**EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILARI**

Nik, ,  NAN zenbakidunak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren mendeko funtzionarioa denak, honako **ALEGAZIOAK** aurkezten dizkiot ikasturte hasierako esleipen-prozesua arautzen duen AGINDU-proiektuari, behin betiko destinorik ez duten edo beteko ez duten karrerako irakasle funtzionarioei dagokiena:

**LEHENENGOA.– Berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen urraketa.** Agindu-proiektuaren 6. artikulua muga espezifiko bat ezartzen die 2.HE egiaztatua duten langileei; izan ere, 1.HEdun lanpostuetara sartzeko aukera mugatzen die, sarbide hori 2.HEik ez dutenen aukerak ez kaltetzearen premisa erabilita eginda baitago.

*«6. artikulua. Hizkuntza-eskakizunari buruzko xedapen espezifikoak.*

*2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten pertsonen 2. hizkuntza-eskakizuna (Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C-1 maila) eta derrigortasun-data igarota duten lanpostuak baino ez dituzte eskuratuko. Hala ere, 1. hizkuntza-eskakizuneko lanpostuak (Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren B-2 maila) eskuratu ahal izango dituzte, baldin eta aukera hori baliatzeak ez badu eragozten eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez duten pertsonen lanpostua eskuratzea.*

Aurreikuspen horrek justifikaziorik gabeko tratu-desberdintasuna ezartzen du egoera profesional berean dauden langile publikoen artean, eta gaitasun linguistiko handiagoa egiaztatu dutenak kaltetzen ditu. Arauketa hori berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen aurkakoa da; izan ere, kualifikazio handiagoaren jabe izateak eskubideak zabaltzea ekarri beharrean, horiek murriztea dakar.

**BIGARRENA.– Hizkuntzagatiko zeharkako diskriminazioa.** 6. artikulua ondorio diskriminatzailea ezartzen du euskararen ezagutza egiaztatu duten irakasleen aurka, egiaztapen hori ez duten irakasleekin konparatuz, esleipen aukerak murrizten baitizkie jabe direnei. Hizkuntza-prestakuntza sustatu beharrean, arauak objektiboki 2HE dutenak zigortu egiten ditu.

**HIRUGARRENA.– Euskararen normalizazio-helburuekin eta hizkuntza-politikarekin kontraesana.** Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politikaren helburuak euskararen normalizazioa eta hizkuntza-eskubideen berme eraginkorra dira. Hala ere, 6. artikulua C1 (2. HE) maila egiaztatzea gutxiesten du, gaitasun hori izatea, oztopo profesional bihur daitekeela adierazten baitu artikulua honek. Horrek administrazio publikoan euskara sustatzeko mandatuarekiko kontraesan zuzena adierazten baitu.

Gainera, helburu horiekin bat datorren antolaketa-irtenbide koherenteena ez da irakasle egiaztatuei eskubideak mugatzea, baizik eta 2. HE duten irakasleek beren irakasgaia bi hizkuntza ofizialetan (edo, hala badagokio, osorik gaztelaniaz) eman ahal izatea ahalbidetzea, bietan jarduteko gaitasuna dutelako.

Horregatik guztiagatik, **ESKATZEN DUT:**

1. Agindu-proiektuaren 6. artikulua ezabatu edo alda dadila, 2. Hizkuntza Eskakizuna egiaztatua duten irakasleak zigortzen dituen edozein muga kenduz.
2. 2HE duten irakasleei beren irakasgaia bi hizkuntza ofizialetan eman ahal izatea ahalbidetuko dien araudia onar dadila, eskariaren arabera, eta berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak nahiz hizkuntza-normalizazioaren helburuak errespetatuz.

(e)n, 2026ko otsailaren  (e)an.